

Ehige Gurasoen Elkarteak honako hau adierazi nahi du:

Euskadiko Eskola Kontseiluak hiru ebazpen onartu zituen abenduaren 17an egin zuen osoko bilkuran. Haur Hezkuntzan, Derrigorrezko Hezkuntzan eta Batxilergoan indarrean diren curriculum ofizialak aldatzeko dekretu proiektuei buruzkoak dira hiru ebazpen horiek. Bertaratutako EHIGERen hiru ordezkariok – Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkarteak – aldeko botoa eman genien aipatutako ebazpenei. Azkeneko, aldeko 19 botoekin eta 7 abstentziorekin egin zuten aurrera ebazpenek.

EHIGEK, uneoro, *Currículo para el País Vasco – Euskal Herrirako Curriculum* dokumentua hartu du eztabaidarako erreferentzia gisa. Dokumentua *Euskal Eskola Publikoa Gaur, Bihar* ekimenaren fruitu da, eta bertan guraso elkarteak eta BiHe eta Sarean zuzendari elkarteek hartu zuten parte. Aurreko curriculum osatzeko aurkeztu genuen dokumentu bera da. Era berean, aurrerago irakur daitekeen moduan, gaur egungo hizkuntza-eredu sistema gaitutako duen hizkuntzak ikasteko esparru-legerik garatu ez denez, aro eta ziklo bakoitzean erdietsi beharreko gutxieneko hizkuntza-gaitasun maila zehaztu beharra dago lehenbailehen.

Txostenok onartu ostean komunikabideetan informazio desberdinak eta kontrajarriak argitaratu direla-eta, EHIGEK Euskadiko Eskola Kontseiluaren ebazpenaren alde zergatik egin duen jakinarazi nahi die eskola-elkarteei eta, batez ere, guraso-elkarteei.

Hala ere, arrazoiak azaldu aurretik, argi utzi nahi dugu Euskadiko Eskola Kontseiluak ez duela curriculum aldatzeko proposamenik onartu edota aintzat hartu: aurkeztutako dokumentuari Hezkuntza Sailak zenbait aldaketa egin diezazkion eskatu du Eskola Kontseiluak. Aldaketa horiek, EHIGERen aburuz, hobekuntza nabarmenak ekarriko lizkiokete Hezkuntza Sailak Eskola Kontseiluari igorritako lehen dokumentuari.

Halaber, STEE-EILAS, ELA eta LAB sindikatuek hiru osoko-zuzenketa aurkeztu zituzten; hirurak ere, bakoitza bere argudioekin, dekretu-proiektuak Hezkuntza Sailari itzultzearen aldekoak. Osoko zuzenketa horien argudioetako batzuekin ados egon arren, batez ere, aurre-eztabaida faltari eta prentsak argitaratutako zenbait adierazpen tamalgarriri buruzkoekin, EHIGeko ordezkariak itzultzearen aurkako botoa eman zuten. Izan ere, egokiago iritzi genion EHIGEK zein STEE-EILAS eta ELA sindikatuek aurkeztutako zuzenketa partzialak bilkuran eztabaidatzeari, bertan onartuz gero dekretu-proiektuaren dokumentua nabarmen hobetuko zutelakoan. Horrela, aurkeztutako zuzenketa partzial gehienak, Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrean aztertu eta adostu ondoren, onartu egin ziren, eta EHIGeko ordezkariak Eskola Kontseiluaren osoko bilkuraren ebazpenak babestu zituen.

Ebazpenen edukia aztertzeko, hiru atal bereiz ditzakegu: euskararen tratamendua, Euskadi-Euskal Herria lurralde-eremuarekin lotutako auzia eta curriculumaren beste zenbait gai.

## **1.- Euskararen tratamendua:**

Aurreko gobernuak onartutako curriculum-dekretuek ziotenez, «euskara da komunikazio-hizkuntza nagusia eskola eremuan»; aldiz, dekretu berriak definizio hori kentzea eta euskara eta gaztelera komunikazio-hizkuntzak izatea aurreikusi du.

2007. urtean EHIGEk euskararen nagusitasuna babestu zuen, baina azken bi urteotan hainbat gauza aldatu dira eta beste jarrera bat hartu dugu. Lehenik eta behin nabarmendu dezagun hizkuntzak ikasteko esparru-lege proiektuak ez zuela aurrera egin; lege horrek gaur egungo hizkuntza-ereduen sistema aldatuko zuen eta lege babesa emango zion euskara komunikazio-hizkuntza nagusi bezala tratatzeari. Onartu ez zenez, ordea, Euskal Eskola Publikoaren Legeak eta Euskararen Normalizaziorako Legeak agindutakoaren arabera izan behar du euskararen eta gaztelaren tratamendua. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren epai batek, indarrean dagoenak, bertan behera utzi zuen «euskara izango da komunikazio-hizkuntza nagusia eskola eremuan» dioen tartearen indarra.

Aurrekari horiek aintzat hartuta, ez zitzaigun zentzuzkoa iruditzen euskararen nagusitasuna defendatzea. Hala ere, aintzat hartu behar da euskara dela, berez, komunikazio-hizkuntza nagusia hezkuntza-sisteman, eta benetako elebitasuna eman dadin aurrera egin behar duela euskararen ezarketak. Horregatik, euskal gizarteak erabakitakoarekin eta ohiko jardunbidearekin bat etorritik, Euskadiko Eskola Kontseiluak honako hau proposatu zuen: dekretu proiektuaren hitzaurreak euskarari lehentasuna eman beharraz mezu positibo bat jasotzea, Euskara XXI dokumentuak eta hizkuntza gutxituei buruzko Europako zuzentzarauk diotena bere eginda.

*Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Komunari* dagokionez, Eskola Kontseiluak B1 eta B2 mailen aipamenak ezabatzearen alde egin du, gaur egungo hizkuntza-eredu sistemarekin loturarik gabeko helburua du eta. Dena dela, Europako esparru hori ebaluaziorako eta garapenerako tresna gisa aintzat hartzen jarraituko du kontseiluak. Bestalde, Eskola Kontseiluaren ustez, ezinbestekoa da ikasle guztiek maila bakoitzaren amaieran lortu beharreko hizkuntza-gaitasuna zehaztea. Horretarako, Europako esparruak adierazitako mailak eta azpimailak erreferentzia izan litezke.

Euskararen ebaluazioaren helburuei eta irizpideei dagokienez, Eskola Kontseiluaren iritziz, Euskararen Normalizaziorako Legeak eta Euskal Eskola Publikoaren Legeak indarrean dirauten artean, dekretu proiektuaren helburuak eta curriculumaren gainontzeko alderdi guztiak lege horietan zehaztutako gaitasun mailetara egokitu beharko dira, eta haiek betetzen direla zaindu beharko da. Gogora ekar dezagun derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan ikasleek erdietsi beharreko gaitasunari buruzko helburu orokorrak ezarriak dituztela bi legeek. Alegia, «bi hizkuntza ofizialen ahozko zein idatzizko ulermena eta adierazmena benetakoa izan dadin lortzea, hiztunek gutxienez ohiko harremanetako eta erabileretako hizkuntza gisa erabili ahal izan ditzaten».

Eskola Kontseiluak gaur egungo hizkuntza-ereduen sistema gainditu nahi du –oroit ditzagun azken urteetan sarri entzundako argudioak–, ez baitu ikasleen gaitasuna ziurtatzen, ikaslea bere jatorri sozioekonomikoaren eta kulturalaren arabera sailkatu baizik, eta horrek eragina du ikasleen emaitza akademikoetan. Horregatik, eta hizkuntza-eredu sistemak indarrean iraun artean, Eskola

## Euskadiko Eskola Kontseiluaren ebazpena dela-eta 2009-12-21

Kontseiluaren ustez, funtsezkoa da Hezkuntza Sailak, EAEko gainontzeko administrazio publikoekin batera, lege baliabideak eskaintzea: hala nola, antolakuntza mailakoak, giza baliabideak eta bitarteko materialak. Izan ere, haiei esker izango dute ikasleek, derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan, dekretuak agintzen duen euskara gaitasun maila.

Era berean, Eskola Kontseiluaren ustez, oso garrantzitsua da eskolatik kanpoko euskararen erabilera, ikaslearen gaitasuna hobetzen baitu. Beraz, Hezkuntza Sailari jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak babestea eta baliabidez hornitzea eskatu dio; batez ere, dekretuak agindutako gaitasun maila eskuratzetik urrunen dauden ikasleentzako jardueren kasuan.

Gure sistemara berandu iristen diren ikasleak euskara azterketatik salbuestea, hezkuntzaren ikuspuntutik, ez da Eskola Kontseiluaren gustukoa. Kontseiluak ez du euskararen irakaskuntzan salbuespenik egin nahi; hortaz, honelako salbuespenak ahalik eta gehien murriztea gomendatu du. Horretarako, curriculumean, ezinbesteko aldaketa guztiak egin eta baliabide egokiak xedatu beharko dira.

### **2.- Lurralde eremuarekin zerikusia duten gaiak.**

Eskola Kontseiluaren aburuz, Euskal Herria izena esparru politiko-administratiboan ordezkatzeko egokia da eta, era berean, egokia da Euskal Herria izena kultura eta hizkuntzalaritza esparruetan erabiltzea. Hala eta guztiz ere, EHIGEK aurkeztutako zuzenketan oinarrituta –aldeko 14 boto eta aurkako 12 jaso zituen–, Eskola Kontseiluari onargarria iruditzen zaio natur zientziak, gizarte-zientziak eta curriculumeko beste zenbait gai Euskal Herriko ikuspegiatik lantzea, betiere erkidego administratibo guztien errealitate juridiko, politiko eta administratiboak errespetatuta. Horregatik, curriculum dekretuetan ikuspegi horren bermea onar dezan eskatu dio Hezkuntza Sailari.

Argudio gisa, EHIGEK gizarte konplexuan bizi garela planteatu zuen; alegia, *askotariko identitate* kontzeptua gero eta hedatuago dagoela jendartean. Hala, uste dugu curriculum proposamen horiek elkarbizitza harmoniatsurako tartea eskaintzen dutela, baldin eta euskal gizartean diren identitate guztiak errespetatzen badira.

Hortaz, curriculumaren arloak landu eta lurralde-eremuaz aritzerakoan, zalantzak sor litezke Euskal Herria (Euskaltzaindiak 2004an emandako definizioaren arabera, «Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Garaia, eta Zuberoa batera izendatzeko erabil bedi Euskal Herria izena») edo Euskal Autonomia Erkidegoa izenen artean. Euskal Herria hautatzeak, hizkuntza eta kultura bereko eremua izendatzen duelako eta dimentsio historikoa eta soziala duelako,

ikuspegi naturalago bati heltzea dakar: tradizioetik eratorria eta baterakoa denari eta nahikoa oinarri sendoa duenari, alegia. Aldiz, Euskadi hautatuz gero, lurralde eremua egitura juridiko eta administratibo jakin bati lotzen zaio, eta abagunean oinarritutako ikuspegiari heltzea eragiten du, nahiz eta indarrean dagoen inongo zalantzarik gabe. Gure ustez, bi ikuspegiak batera eman daitezke, eta urte luzez gatazka nabarmenik izan ez denez eta ahalik eta akordiorik zabalenak lortzeko, 1996. urtetik curriculum proposamenek gai honi buruz emandako irizpideak bere horretan lagatzea proposatu nahi dugu.

### **3.- Curriculumaren beste zenbait gai**

Kontseiluak ontzat jo du dekretuak irakurmena sustatzeko laguntza neurriak ezartzea eta haiek lehenbailehen ikastetxe guztietan indarrean jartzea espero du; gu bat gatoz balorazio horrekin

Era berean, Kontseiluaren iritziz, dokumentu berriak zaharra nabarmen hobetzen du herritartasunerako hezkuntzaren eta giza eskubideen arloetan.

Ikasliburuak eta curriculumaren gainontzeko materialak aurretiazko baimena jaso beharrik gabe gainbegiratzea onartu du kontseiluak. Hala ere, Hezkuntza Sailak liburuen eta gainontzeko hezkuntza-materialen hizkuntza kalitatea bermatzeko sistema abian jarri behar du. EHIGE ados dago gai horretan.

Era berean argi utzi nahi diogu hezkuntza komunitateari kontseiluak ez dituela onartu ordutegiei buruzko zenbait zuzenketa, ezta erlijio irakasgaia mantentzeari buruzkorik ere. Dekretuak aurrera egiten duenean, auzi horiek mahai gainean jarriko ditugu berriro ere.

### **Azkenik**

Azkenik, Hezkuntza Sailari Eskola Kontseiluaren ebazpenak aintzat hartzeko deia egin nahi diogu. Eta Eskola Kontseiluaren azken ondorioa ere nabarmendu nahi dugu: «Kontseiluak Hezkuntza Sailari gomendatu nahi dio akordioak egiteko behar beste baliabide erabiltzeko, ez soilik alderdi politikoekin; baita, batik bat, hezkuntza komunitatearekin ere».

Bilbon, 2009eko abenduaren 21an